

AZPIEGITURAK. Konponketak Udalak bere gain hartu behar dituela uste dau Lander Etxebarria EHko zinegotziak

Urazurrutiako ezbeharrak agerian itxi dau kaiak barritzeko premina dagoala

Herri lanek, inguruan, kalte ugari eragiten dituela ikusi da domekako istripuaren ostean

Iñigo Bilbao

Domeka gauean Urazurrutiako kaian izandako ezbeharrak agerian itxi ditu, ezin gordinago, hainbat arazo. Batetik, agerian geratu da zein dan erreka bazterreko kaian egoera. Oraingoan Urazurrutia aldean hondoratu da kaia, baina orain zortzi urte, 1993 urteko zezeilean, bat-batean jausi zan Campo del Volantin pasealekua, udaletxearen aurrean.

Arenalean be, susto txiki bat hartu eben udal agintariak handik urte gitxira, eta jarraian konpondu behar izan eben hondoratze kotan zegoan kai zatia. Eta Abandoibarra aldean be, bertan egin gura daben proiektuaren lanak hasi aurretik, kaia eusten daben zutabeak barritzau behar izan ditue.

Arazoa bikotxa da: kaia zaharra dala, bai, baina horren gane-

ko ardura eta eskuduntzak Madrilen dagozala, bestetik.

Urazurrutikoa gertatu ostean, Lander Etxebarria EHko zinegotzia izan zan horren inguruan berba egin eban lehenengo. Ez zan bakarra izan. Etxebarriak kaian segurtasuna bermatzeko premina dagoala azpimarratu eban, eta urtenbide lez, itsasadarra goitik behera hartuko dauen egitasmoa egitea proposatu eban. Bere ustez, Udalak bere gain hartu beharko leuke horren ardura.

Iñaki Azkuna alkateak be kaian egoeraren ganean arduratuta dagoala onartu eban. Aurrreratu eban, laster baten neurriak hartzen ez badira, leku gehiagotan jausiko da kaia. Horregaitik, aste honetan bertan gutuna igorri deutso Espainiako Ingurumen ministroari. Idazkian San Anton zubitik erreka gora dagoan tartean kaia zein

KRONOLOGIA

Apurka-apurka jausi beharrean dagoan kaia

Domekako ez da izan da itsasadarrean gertatu dan lehenengo hondoratzea, eta, gauzak konpontzen ez badira, ez da azkena izango.

CAMPO DEL VOLANTIN. Pasealeku horretan beheganea bat-batean hondoratu zan errekan, 1993ko zezeilean.

ABANDOIBARRA. Euskalduna Jauregia eta Guggenheim museoaren artean kaia barritzau egin behar izan dabe, obrakaz jarraitu aurretik.

egoeratan dagoan ahalik eta lasterren aztertu daien eskatu deutso ministroari. Aztertu eta, beharrezkoa dala ikusi ezkerro, obrak egin daiezan.

Obrek eragindako kalteak

Domekako istripuak beste arazo bat be atara dau azalera: Administrazioak egindako obrek zelako eragina izaten daben inguruko eraikinetan. Istripuaren atzean Ur Partzuergoaren eta Portuko Agintaritzaren obrak dagozala salatu dabe askok.

San Inazion, beste alde bateatik, metroa ipinteko beharrek kalte handiak eragin zituen inguruko etxeetan. Artxandako tunelak egiteko obrek be, ezin gon handia eragin dabe Ugaz bideko etxeetan, eta ez da txikiagoa izan Mirivillako obretan erabili diran leherkariak inguruko eraikinetan izan daben eragina.

MOZINOA

Ardurak zehaztuko dituan batzordea eskatu dau PSEk

Bilboko PSE-EEK Urazurrutia kaian izandako istripuaren inguruko erantzunkizunak nori jagokozan zehazteko, batzorde berezi bat osatu daian proposatuko deutso udal batzarrari. Mozinoa maiatzeko batzarrean eztabaidatuko da.

«Argi dago Udalak huts egin dauela jagokozan erantzunkizunetan. Ez agian eskuduntzen ganeko arduran, baina bai erantzunkizun politikoetan», adierazo dau Dimas Sañudo talde sozialistaren bozeroaleak.

«Ezin dogu onartu uriaren ezaugarriak esanguratsuenetakoak dan zubiaren alboalboan horren ezbehar handia gertatzea», ganeratu dau zinegotzi sozialistak.

Horregaitik, Sañudok uste dau preminazkoa dala ardurak zehaztuko dituan batzorde hori osatzea.

Bilbo barruko errefuxiatuak

URAZURRUTIAKO BIZILAGUNAK. Gauzak egiten hasi dirala ikusi dabe, eta apur bat nasaiago dagoz orain

I. B.

Etxetik gertu, baina etxetik kanpo. Urazurrutiako Etxe Gorriko bizilagunak amets gaizto baten lez bizi dira joan dan domeka ezkerro. Euren etxearen aurrez aurre dagoan jatetxean aurkitu doguz jatorduan. Oraindik arduratuta dagozan arren, beharginak lanean hasi dirala ikusi dabe, eta horrek apur bat nasaitu dituala aitortzen dabe.

Ordu bi georago hitzordua daukie udaletxean. Zer esango deusieen goizean goiz irakurri ahal izan dabe egunkarietan —dana ez, seguruen, baina bai funtsezkoena—, eta horrek be itxaropen apur bat sortu deutse. Jaten dagozala, horren inguruan luze egiten dabe berba. Batzuen ustez, laster jakingo dabe aterpea non emongo deusieen. «Ez da izango bihar bertan sartzeko, baina gitxienez

non sartuko gaituen esango deuskuela pentsetan dot», esan dau andrazko batek.

Alboan daukan gizona goibel dago baina. «Gauza asko esan deuskue, eta danak ez ditue bete», gogoratu dau. «Astelehenean alkateagaz batzartuko ginala esan euskuen, eta oraindino haren zain gagoz».

Mesfidantza handia da, nahiz eta onartzen daben gauzak mogitzen hasi dirana. «Inork ez dau gertatu danaren ardura bere gain hartu gura, baina Surbisakoak eta Portukoak beharrean hasi dira. Eta ez da gitxi», aitortu dabe.

Egunotako gastuak be Udalarren kontura izango dira, Gizarte Ongizate sailak jatetxeagaz eta hotelagaz berba egin, eta fakturak eurei pasetako eskatu deusiee. Alde horretatik ondo, edo... «gogaikarria da hotelean bizitea», dine. «Egunotan intimidadea galdu dogu; lehen



XOUSE SIMAL

JATETXEAN. Ondo zainduta dagozan arren, Urazurrutiako bizilagunek etxean egotea gurago eben.

etxea geunkan... gure logela, sukaldea, ordenagailua... eta orain hotelean gela bat baino ez, eta hori gogorra da», azpimarratu dabe.

Entzun dituenak entzun ostean

Nasaiago badagoz be, ez dabe ahazten egunotan entzun eta irakurri dituenak, eta oraindik minduta dagoz nonbaiten etxea hondatuta egoala irakurri ebelako. «Izango dira etxea hondatzen itxi daben ugazabak, baina gu ez gara horreek. Orain gitxi goitik behera barritzau eta margotu ditugu etxearen hormak,

ETXEA

Baten batek uste badau etxea hondatuta dagoala, barrura sartu eta ikustera gonbidatu dabe, berba egiten hasi aurretik

eskilarak eta ataria; eta etxebizitzak be berregokituta dagoz danak. Baten batek benetan uste badau, etxea hondatuta dagoala, datorrela ikusten berba egiten hasi aurretik.

Ezbeharrak are gehiago al-

kartu ditu auzokoak. Auzunea zaharbarritzeko egitasmoaren armarrarian agertzen dan Etxe Gorriko bizilagunak gero eta lagunagoak dira euren artean, bai, baina gero eta estuagoa da auzoagaz daukien lotura. Edozer gertatuta be, auzoan segitzeko asmoa daukiela azpimarratzen dabe.

Iñaki Azkuna alkateak besterik aitatu eban arren, ez dabe uste etxea bota behar izango danik: «Arazoa kaia da, etxea lehenagotik dago hor, eta dagoan lekuan segituko dau urte askotarako. Hori argi daukagu».